

ONGI ETORRI MUNDUKO INDUSTRIA KUTSATZAILEENETAKO BATERA: ZINEMA

1922 urtean Robert Flaherty-k *Nanook of the North* dokumentala estreinatu zuenean, gizakia eta ingurune naturalen arteko erlazio zaila islatu zuen, zazpigarren arteari zinema etnografikoaren ateak irekiz. Geroztik, eta azken urteetan batik bat, ohikoak dira naturaren gaia eta batez ere, gizakiak ingurumen horri egindako kaltea tratatzen dituzten ikus-entzunezkoak. Baina, zenbaterainokoa da kontzientzia ekologikoa zineman?



Gaizka Izagirre

@Gaizka_Izagirre

Pantaila aurrean

Pixar faktoriaren *Wall-e* film zoragarrian bi robot protagonistez gain, zeharkako hirugarren pertsonaia bat loratzen dela ohartuko zineten: zaborra. Gizakiak sorturiko kutsadurak eta zakarrak lurrean bizitzea ezinezko bihurtu duenez, planeta utzi eta hasierako egoera berreskuratzeko intentzioz, garbiketa robot batailoi bat uzten dute. Erabili, bota eta beste norbaitek gure "arazoa" konpon dezan itxaron. Ez pentsa, aurkezpen komertzialak dioen bezala, "maitasun zibernetiko bati buruzko kontakizun" simple bat denik. Zaila iruditzen zait "umeentzat" katalogatua dagoen film bat hau baino "helduagoa" izatea.

Askoz ere tratamendu zorrotzagoa erabiliz, logikoa den bezala, dokumental ugartan ere ikusi dugu gaia: Agnès Vardak zuzenduriko *Les glaneurs et la glaneuse* dokumentalean adibidez, zabor artean bilatzea prozesu zehatz kontsideratzen duten talde bat ezagutu genuen. Vardak Frantziako hiri eta landa eremuetatik bidaiatu zuen, ikusten zuen guztia kamerarekin grabatzen, bilketa horretatik bizi ziren pertsonak ezagutzeko aukera eskainiz. 2009. urteko *Plastic Planet* dokumentalean aldiz, mende bat baino gutxiagoko bizitzarekin, unibertsala eta ezinbestekoa bihurtu den materialaren kalteak ezagutu genituen: plastikoa. 2012an, Jeremy Irons aktore ezaguna munduko hondakin guz-

tien efektua eta garrantzia azaltzen saiatu zen *Trashed* lanean. Mundu osoan barrena bidaiatu zuen, toki zoragarri baina era berean kutsatuak erakutsiz. Eta agian ezagunetarikoa: 2007. urteko *An Inconvenient Truth* dokumentalean, berotze globalaren arriskuen eta horren eragile nagusien berri eman zuten. Klima aldaketarena egia deserosoa omen da zenbait agintarientzat, hortik filmaren izenburua.

Momentuz oso urrunetik ukitu duen arren, pantaila txikiak ere jorratu du gai hau. Azken urteetan Europa iparraldeko telesailetan loratzen ari den fenomeno txiki bat izan liteke horren frogarria: eko-telesailak. Energia berriztagarriak ardatz dituen *Bedrag* telesail danimarkarra adibidez. Edo *Okkupert* norvegiarra, orain urte batzuk zientzia fikziozko gidoi bat izan zitekeena, baina geroz eta gertuago ikusten dugun errealtatea islatzen duena. Klima aldaketaren ondorioz eta baliabide natural eskasak direla eta, norvegiarrek petrolio eta gas gehiago ez produzitzea erabaki dute. Hori dela eta, Errusiak Norvegia inbaditzen duen gertuko etorkizun batean kokatzen gaitu istorioak. Ekintza honekin, herrialdeko ustiapen osoaren kontrola eskuratu nahi dute.

Eta azkenik, sinbolismoz jositako *Jordskott* telesailan, etengabe ikusten ditugu Suediako kokaleku naturaletako zuhaitzak, tramaren ezinbesteko elementu bihurtuta.

Pantaila atzean

Luze hitz egin daiteke pantaila aurrean ingurumenaren gaia nola tratatu den aztertu nahi izanez gero. Baina zer gertatzen da kamera atzean? Mundu osoan eta batez ere Hollywooden egunero izaten diren milaka errodateetan sortzen diren zaborra nola kudeatzen da? Jasan-garriak al dira gaur egungo grabaketak? Ze tarte okupatzen du birziklapenak?

Efektu berezietarako sortzen diren ez-tandak, argiztapen ikaragarriak, eraikitzen diren dekoratu eta agertoki erraldoiak... Kaliforniako UCLA unibertsitateak 2006an argitaratutako ikerketa baten arabera, bertako ingurumenean Hollywoodeko zinema eta telebista industrien, hotel, ehungintza, automobil edo aeronautika sektoreek baino eragin kaltegarriagoa dute. Petrolio industriak soilik gainditzen ditu. Urteko 140.000 tona partikula kutsakor baino gehiago sortzen ditu eta Los Angeles hirian azaltzen den *smogaren* arduradunen artean daude ikus-entzunezko industriak.

Aurre eta postprodukzio faseak kon-tuan izan gabe, edozein errodateko ohitura txarren Top-5 bat egin dugu:

1) Diesel argi instalazio bat behar izaten dute grabaketa *set* guztiak argiztatze-ko. Egunean 18-20 ordu egon daiteke piztuta, astean 6 egun, 5-10 astez edo gehiago.



Jeremy Irons 'Trashed' filmean.
Kontzientzia ekologikoa
zabaltzeaz gain, filmak ekoiztean
ere geroz eta garrantzitsuagoa
da ingurumena zaintzea.

2) Kamioi eta furgoneta ugari erabiltzen da grabaketa ekipo guztia garraiatzeko baita errodate batean lanean dabiltzan ehunka pertsonak ere.

3) *Catering*etan plastikozko ehunka edalontzi eta plater erabiltzen dira. Ur botila ugari botatzen dituzte eta horrekin batera, alferrik galtzen den ura, jendeak ez duelako errodate guztian botila gainean alde batetik bestera ibili nahi.

4) Arte alorrean erabiltzen den material gehiena bota egiten da. Apenas dagoen berrerabilpenaren kulturarik.

5) Aro digitalean gauden arren, eta kalte hau pixkanaka murrizten ari den arren, egunero hainbat paper pakete erabiltzen da oraindik, gidoi edo sekuentzia konkretuen testuak inprimatzeko.

Adibide jasangarriak

Talde ugari mobilizatu da azken urteotan konpromiso ekologista baten alde. AEBetako elkarte zinematografikoak bultzaturiko jardunbide egokien gida edo Hollywood Goes Green ekimena sortu dira, adibidez, estudioek ingurumenarekin modu arduratsuan lan egiteko konpromisoa sendotu dezaten: hondakin guztien %65 birziklatzea, erregaiak biodieselarekin ordezkatzeko, kontsumo baxuko bonbillak erabiltzea, mezu elektronikoak paperezkoengatik ordezkatzeko, paper birziklatua ahalik eta gehien erabiltzea, zinema izarren

hegazkin pribatuak kendu eta hegaldi konbentzionalak lehenestea, *set* guztiak material birziklatuekin eraikitzea...

Baina ahalegin horrez gain, benetako konpromisoa sustatu beharko lukete eta adostasun orokor bat lortu. Are gehiago mezu ekologikoa duten filmek. 2004. urteko *The Day After Tomorrow*ekin egin zuten bezala adibidez: gehiegizko gertaera katastrofiko bat irudikatu zuten, berotze globalak lurra glaziazio egoerara bultzatuko zuela erakutsiz; eta ia 700 milioi dolarreko irabaziak izan ondoren, ekoizleek 200 milioi inguru zuhaitzak landatzeko eta beste hainbat ekintza jasangarri bultzatzeko erabili zituzten. Hori bai, errodatean sorturiko 10.000 tona karbono dioxidoak eragin zituen kalteak euren kontzientzian sorturiko zurrunbiloa baretzeko neurria baino ez zen izan. Ez da horrelako zalaparta eta handikeriarik behar, txikitik eta egunerokotasunetik egin beharreko aldaketak baizik.

Askoz interesgarriagoa da 2009an Sam Mendesez zuzendu zuen *Away We Go* filmaren filosofia. Bizi diren herria abandonatu eta haurrarentzat leku egoki baten bila joko duen bikote baten istorioa kontatzeko asmoz errodatu zuten filma. Baina batez ere, zinema ekologikoki jasangarria eta arduratsua egin daitekeela frogatzeko. Esfortzua nahiko handia izan zen, ia mende batez zinema modu bakarrean egin baita: kutsatzen.

Green Media Solutions aholkulari taldearekin batera, argiztapen guztia berrituztat biodiesela erabili zuten; lan-taldea eta material guztia alde batetik bestera mugitzeko kotxe hibridoak eta bizikletak; plastikozko botilak guztiz debekatuta zeuden, aluminiozko termo berrerabilgarriak erabili zituzten horien ordez; ontziteria guztia biodegradagarria zen; dekoratuek sorturiko hondakinen %51 berrerabili eta gainerako %49 birziklatu zuten; eta materia organikoa gehiena konposta egiteko erabili zuten.

Beste ekoizpen batzuetan ere esfortzu txikiak antzematen dira: HBOren *Boardwalk empire* telesail bikainean, adibidez, jantzi guztiak bigarren eskukoak dira eta ibilgailu guztien herena hibridoak. Meryl Streep protagonista zuen *It's Complicated* filmean sobratu zen fruta eta janari guztia banatu egin zuten. *Matrix* errodatzen amaitu zutenean dekoratu guztiari bigarren erabilpena bilatu zioten: Mexikon bizi ziren errekurtsorik gabeko familientzat etxeak eraikitzeke erabili zituzten.

Argi dago zinema arma izan daitekeela, bozgorailua, lupa, klase sozial desberdinetako pertsonen hausnarketa bultzatzen dezakeen komunikabide oso eraginkorra. Adibide hauek ordea, salbuespena dira eta ez araua. Tamalez, oraindik, zinemaren industria munduko kutsatzailerenetakoa dela esan behar dugu. ■